

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure egitasmoa aurrera eramateko, garrantzitsua da gure negozio-ideia **modu errealista** batean ikustea. Hori dela eta, zalantzarik gabe, hasiera batean, edukiko ditugun baliabideak mugatuak izango dira. Hala ere, etorkizun batean, gure baliabideak eta zerbitzua hobetzea espero dugu, lokal handiago bat erabiliz, langile gehiago kontratatuz, etab.

Gure helburu nagusia memoria arazoak dituztenei laguntzea izango da, haien ongizatea bermatzea. Hori lortzeko, funtzesko baliabideak behar ditugu, gure bezeroei, halik eta zerbitzu onena eskeini ahal izateko.



Erabiliko ditugun baliabideak azaltzen hasteko, **baliabide fisikoekin** hasiko gara. Hauek, lokala, imprenta, eta gailu teknologikoak izango dira. [Lokala](#), Bilbon ezartzea erabaki dugu, Deuston hain zuzen. Lokala 92 m²-koa izango da, 4 gelatan banatuta egongo dena; harrera, imprenta-gela eta gu-geu disñora bideratutako gela, bilera-gela, eta bezeroak jasotzeko bulegoa. Gailu teknologikoak direla eta, hasiera batean, langile bakoitzak bere portatil pertsonala erabiliko luke, eta imprenta dela eta, [Exapron erositako bat](#) erabiliko genuke. Horrez gain, elkarlan egiten dugun beste enpresen zentruetan gure zerbitzuak ere eskainiko ditugu, hain zuzen ere terapiak.

Finantza baliabideei dagokionez, [euskal jaurlaritzak ekintzaile gazteei ematen dizkieten diru-laguntzak](#) eta [Espainia estatuak emandako diru-laguntzak](#), eta administrazio publikotik, osasunara bideratuta dauden diru laguntza batzuk jasotzea espero dugu. Horretaz gain, proiektu kide bakoitzak kapital zati bat jarriko genuke, 1000€koa, horrela, 4000€ko **kapital sozial** bat sortuz.

Baliabide intelektualei dagokionez, web-gunea gu sortu dugu. Horretaz gain, *Gu-geu* ondasunetan **patente** bat jartzea erabaki dugu. Amaitzeko, **giza baliabideak** direla eta, gure langileek jakintza batzuk barneratuta dituzte, hala nola, elkarlana, enpatia, integrazioa, errespetua, pazientzia, tolerantzia eta azkenik organizazioa.





Taldeko guztiok oinarrizko formakuntza daukagu lehen sorospenetan, izan ere bakoitzak ikasketa ezberdinak ikasiko ditugu. Baita ere partaide guztiek motibazioa edukitzea ezinbestekoa dela uste dugu, horrela lana azkarragoa eta atseginagoa izango da.



Hasteko, **Joane Zabalak** lan harreman eta giza baliabideetako gradua ikasi nahi. Nortasunaren aldetik, pertsona lagunkoia da, adineko jendeak miresten du, naturaz gozatze du, eta antolatzaile da. Gainera, lan harremanen eta langileen zuzendaritza eta kudeaketaren ezagutza du. Horregatik, enpresan egingo diren hitzaldi eta txangoetatik arduratuko da.

Bigarrenik, **Naroa Sagastizabalek** ADE eta marketinaren ikasketak egingo ditu. Oso antolatua da. Horretaz aparte beste hainbat ezaugarri ditu, sare sozialetan sakontzen da, bezeroak erakartzeko bide berriak asmatzeko gaitasuna du eta beste enpresekin harremanetan egoteko gaitasuna du. Orduan hau ikasita, beste enpresekin harremana izateko gaitasunak lortuko ditu eta enpresaren marketina eramateko gai izango da, bere lanari egokituta.



Bestalde, **Alazne Fernandez-ek** Hizkuntzak Modernoak + Euskal Hizkuntza eta Kulturaren ikasketak ditu. Horrez gain, aisialdirako titulua du, hau da, monitore titulua. Umeekin egon izan denez pazientzia handia du eta badaki nola gauzatu behar diren ekintzak. Lehen sorospenetako ikastaroetan ere egon da. Hau dela eta, Gu-geuak idaztea izango da bere lana.

Azkenik, **Maialen Aguirrek** ADE eta Nazioarteko Harremanak gradua ikasiko du. Honekin bat dator antolatua izatea, langilea eta kudeaketak egiteko gaitasuna izatea. Bere lana enpresa barruan, beste enpresekin harremanetan jartzea izango da, Gu-geuak aurrera ateratzeko.





Era berean, beste enpresekin edo elkarteekin egingo ditugun aliantzak direla eta, haien esperientzia eta baliabideak baliogarriak izango zaizkigu. Alde batetik, gaixo eta senideekin jarduteko duten esperientziagatik, eta aldi berean, ekintzak aurrera eramateko dituzten baliabideak bai zentruak bai makineria, jolasak... Bestetik, IMQ, Osakidetza edo CEAFA elkarteak dituzten kontaktuak mundu mailan, lagunduko gaitu gure enpresa ezagutarazten.